

MIC Edizioak

# SANJUANAK EIBARREN 2023



# AGURRA

Hemen da berriz ere ekaina, eta, urtero bezala, eibartarrok gehien itxaroten dugun jaia.

Iritsi da halako jai seinalatu batek eskatzen duen moduan herria apaintzeko garaia, tradizioa eta apustu berritzaileago batzuk elkartzen dituen programazioa eskaintzen digun jaia.

Horregatik, ekainaren 23an, Estaziño kalean itxaroten zaituztegu, atzera ere Lizarrako dultzaineroen harreraren emozioa sentitzeko, eta denok batera kalerik kale udaletxeraino joateko, danborra eta dultzainak lagun.

Gainera, egitarau honetan ikusiko duzunez, Untzaga kontzertu handien eszenatoki izango da aurten ere, oso ezagunak diren bi taldek joko baitute, Fangoriak eta Su Ta Garrek. Horrez gain, danborradak izango ditugu, erraldoi eta buruhandien kalejira tradizionalak, herriko kaleetan ezustean harrapatuko gaituzten antzerki-taldeak, eta kuadrilentzako jolasak.

Beraz, bueltan datoz Eibarko San Juan jaiak egitarau zabal batekin, festa hauetaz behar bezala gozatu ahal izan dezagun. Jardueraz betetako eskaintza zabal bat izango dugu, ezinezkoa litzatekeena kirol, gizarte eta kultura arloko taldeen partaidetzarik gabe; horregatik, eskerrak eman nahi dizkiet guztiei.

Gora Eibar eta gora Eibarko sanjuanak!

**Jon Iraola Iriondo**
*Jarduneko alkatea*



# SALUDA

Llega ya el mes de junio y, con él, la fiesta más esperada por los eibarreses y eibarresas.

Ha llegado el momento de engalanar la ciudad como requiere una festividad tan señalada y esperada, que nos ofrece una programación que combina tradición y otras apuestas más novedosas.

Por eso, os esperamos el próximo 23 de junio, en la calle Estación, para volver a sentir la emoción del recibimiento a los dulzaineros de Estella y recorrer juntas y juntos las calles hasta el Ayuntamiento al son de las dulzainas y del tambor.

Además, como podrás ver en este programa, Unzaga volverá a ser el escenario de los conciertos más señalados de la programación de este año, con dos grupos por todos y todas conocidos como son Fangoria y Su Ta Gar.

También podremos disfrutar, por supuesto, de las tamborradas, de los tradicionales pasacalles de comparsas de gigantes y cabezudos, grupos de teatro que nos sorprenderán en diversos espacios de la ciudad y los juegos para cuadrillas.

Por tanto, vuelven los Sanjuanes de Eibar con un completo programa que nos llevará a disfrutar de estas fiestas de forma intensa. Una oferta variada de actividades que, una vez más, es posible gracias a un gran número de colectivos deportivos, sociales y culturales a los que quiero expresar mi más sincero agradecimiento.

Gora Eibar eta gora Eibarko Sanjuanak!

**Jon Iraola Iriondo**
*Alcalde en funciones*

# SEXUBIZI GUNE MOREA

LGTBI+ FOBIARIK GABEKO GUNEA
ESPACIO LIBRE DE LGTBI+ FOBIA

## JAI-GUNE PREBENTZIO PROGRAMA

**Sexualitate eta harreman osasuntsuak** bultzatzen duen zerbitzua.
**Informazioa, aholkularitza** eta **genero erasoen aurkako babes gunea** eskaintzen duen gune mugikorra

*Servicio que promueve una **sexualidad y** unas **relaciones sanas.***
*Espacio móvil de **información y asesoramiento***
*y **lugar de protección ante las agresiones de género***

**SAN JUAN JAIETAN**

**ekainak 16, 17, 23, 24 junio** 24:00 – 03:00
**ekainak 22 junio** 10:00 – 13:00
**UNTZAGA PLAZA**

EIBARKO UDALA

# KONPROMETITU GAITEZEN EIBARREKIN
# COMPROMETÁMONOS CON EIBAR

**EGIN ITZAZU JAI HAUEK JASANGARRIAGOAK!**

¡HAZ QUE ESTAS FIESTAS SEAN MÁS SOSTENIBLES!



- ✓ **Eibar garbi mantendu eta ez bota zaborra lurrera.**
- ✓ **Sortzen dituzun hondakinak gutxitu, berrerabili eta/edo birziklatu.**
- ✓ **Erabilgarri dauden paperontziak eta edukiontziak erabili.**
- ✓ **Edalontzi berrerabilgarri bat izan beti eskura**
- ✓ **Antolatzen dituzun bazkari eta afarietan oihalezko mahai-zapiak eta ontziteria berrerabilgarri edo konpostagarria erabili.**
- ✓ **Eman lehentasuna tokiko produktuei, ekologikoei eta bidezko merkataritzakoei.**
- ✓ **Erabili beti garraiobide jasangarriak.**
- ✓ **Eta auzokideak errespetatu: gutxitu zarata!**

- ✓ Mantén limpio Eibar y no tires la basura al suelo.
- ✓ Reduce, reutiliza y/o recicla los residuos que generes.
- ✓ Usa correctamente las papeleras y contenedores a tu disposición.
- ✓ Ten siempre a mano un vaso reutilizable.
- ✓ En tus comidas, usa manteles de tela y vajilla reutilizable o compostable.
- ✓ Prioriza la compra de productos locales, ecológicos y de comercio justo.
- ✓ Utiliza siempre medios de transporte sostenibles.
- ✓ Y respeta a tus vecinos y vecinas: ¡minimiza tus ruidos!

# EGITARAUA

## EKAINAK 1, 2 ETA 3, EGUENA, BARIXAKUA ETA ZAPATUA

19:30ean, Coliseo antzokian, **Nele Dantza ikuskizunaren emanaldia.**
**Sarrera: 3 €**

## EKAINAK 8 ETA 9, EGUENA ETA BARIXAKUA

20:00etan, Coliseo antzokian, **Biraka Dantza ikuskizunaren emanaldia**.
Sarrera: 3 €

## EKAINAK 9, BARIXAKUA

19:30ean, Untzaga plazan, **Dantzari Eguna**.
Antolatzailea: Klub Deportiboa - Kezka Dantza Taldea.

20:30ean, Ipurua kiroldegian, **XXXIV. San Juan Igeriketa Saria**.
Antolatzailea: Igerixan.

22:30ean, Astelena frontoian, **boxeo gaua**.
Antolatzailea: Gimansio Ttatt SL

## EKAINAK 10, ZAPATUA

16:00etatik 21:00etara, Txaltxa Zelain **Eibarko VIII. Break Dance eta New Style Txapelketa**.

17:30ean, **Eibarko III. Txistu eguna**, Kalejirak herriko auzoetatik.
Antolatzailea: Usartza Txistulari taldea.

22:00etan, Astelena frontoian **Eibar Kantuan**. Sarrera: 5€

## EKAINAK 11, DOMEKA

12:30ean, Toribio Etxebarria kalean, **Eibarko CIELITO Musika Bandaren kontzertua**. Euria eginez gero Errebalen.

## EKAINAK 14, EGUAZTENA

20:00etan, Coliseo antzokian, **KOA Dantza ikuskizunaren emanaldia**.
Sarrera: 3 €

## EKAINAK 15, EGUENA

19:00etan, Untzaga plazan, **Ipurua Gimnasia Erritmiko taldearen erakustaldia**.

## EKAINAK 16, BARIXAKUA

17:00etan, Ipurua kiroldegian, **XIX. Eibarko Hiria squash saria**ren kanporaketa fasea.
Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.

19:00etan, Ibarkurutzen, **gau poetikoa**, Maite Lorenzok zuzendua.

20:00etan, Coliseo antzokian, **Ballet Eibarrés taldearen emanaldia**.
Sarrera: 3 €

21:30etik aurrera, Untzaga plazan, **Ehun Kilo eta SUTAGAR** taldeen **kontzertua**.



## EKAINAK 17, ZAPATUA

**09:00etan**, Ipurua kiroldegian, **XIX. Eibarko Hiria squash** sariaren oinarrizko koadroa. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.

**10:00etatik** aurrera, Unbeko goiko futbol zelaian, Eibarko kuadrilen **II futbol 7 txapelketa**, 1960-2006 urte artean jaiotakoentzat. Izen ematea Instagram-eko IPQLOKAL kontuaren bitartez.

**09:30etik** 20:30era, Errebal plazan, **jolasen simulazio tailerra** (modelismoa, eszenografia eta mahi-jokoak), **Odisea elkartea**ren eskutik.

**12:00etan**, **XXXV. Eibarko Hiria Bolo Palma txapelketa** Ipuruako bolatokian Eibarko Casa de Cantabria eta Ermuko Peña Bolística taldeen artean.

**16:00etan**, **XIX. Eibarko Hiria squash sariaren finalak**. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.

**23:00etatik** aurrera, Untzaga plazan, **FANGORIA** taldearen **kontzertua**.



**23:30etik** 02:30era, Untzagan, **alkohol eta drogen kontsumoaren gaineko informazio eta prebentziorako karpa**.

**01:00etatik** a 03:00etara **Dantz Point musika elektronikoa herriko Unai Santos DJarekin eta Yahaira Djarekin**.

## EKAINAK 18, DOMEKA

**9:30ean**, **LXXXVII. txirrindularitzako San Juan Sari Nagusia – Gipuzkoako txapelketa**, gazte kategoria. Irteera eta helmuga Untzagan. Antolatzailea: Eibarko Txirrindulari Elkartea

**17:00etan**, **II. San Juan Txapelketa 3 bandako billarra**. Antolatzailea: Casino Artista Eibarres

## EKAINAK 22, EGUENA

Egunean zehar, feriako atrakzioen prezioa 0,90 eurokoa izango da.

**17:00etatik** 20:00etara, Untzagan, **umeentzako puzgarriak**.

**19:00etan**, Untzaga Plazan, **umeentzako antzerkia: "Txaplin" Tutik Klown konpaniaren eskutik (Gari, Montxo eta Jose Lontxo pailasoak)**.

**22:00etan**, Untzaga Plazan, **antzerkia: "Carbon Club" Markeliñe konpaniaren eskutik.**

## EKAINAK 23, BARIXAKUA

**10:30ean**, Ospitalean, **Santuari zapia jarriko zaio Kaleetan kantuz** taldearen laguntzarekin.

**11:00etan**, Untzagan hasita, **Sanjuanetako Zortzikoa, Usartza Txistulari Banda**ren eskutik eta musikarien laguntzaz.

**12:00etan**, Untzagan, **koadrilak bildu**, eta **Ustekabe** fanfarrearekin **kalejira** Urkizuraino. Antolatzailea: Gaste.





**13:00etan**, Estaziño kalean, **ongietorria Lizarrako Dultzaineroei**, eta **kalejira** Untzaga plazaraino, **Udalbatza, SD Eibar emakume taldea, Hodei Ezpeleta, Lorea Urkia, José Pérez Cid- El Tigre, Aitor Montero eta kuadrilak** lagun dituztela.

**13:30ean**, Udaletxetik, **pregoia** eta jaiei hasiera emateko **txupinazoa**.

**13:30ean**, Arraten, **Eibarko helize tiro Sari Nagusia**.

**13:45ean**, Udaletxean, **Sanjuanetako kartel lehiaketaren eta alkohol gehiegikeriaren kontrako pegatina lehiaketaren sari banaketa.**

**17:00etatik** 20:00etara Untzagan **Klarion tailerra: Sanjuanetako munduko kartel haundiena, Lekim Animazioak**en eskutik.

**17:30etik** 20:30era, Urkizun, **umeentzako puzgarriak**.

**18:00etan**, Untzagatik abiatuta, **kalejira Ustekabe** fanfarrearekin.

**19:00etan**, Urkizutik, **Lizarrako erraldoi eta buruhandien eta Lizarrako Dultzainero**en kalejira.

**19:30ean**, Untzagatik abiatuta, **kalejira Irulitxa** fanfarrearekin.

**19:00etan**, San Andres elizan, **Salbea Parrokiako abesbatza**rekin.

**23:30ean**, Untzagan, **San Juan Sua** eta **Nele Dantza - Eibarko Dantza Garaikide** taldearen emanaldia, ...eta kitto! elkartearen eskutik, eta **Queimada**, As Burgas Casa Cultural de Galiciak antolatua.

**00:00etan**, Untzagan **San Juan Kantua** eta jarraian **Danborradaren Alardea**, Eibarko Cielito Musika Bandaz lagunduta.

**00:00etatik** 03:30era, Untzagan, **Testing Programa, Ai laiket**.

**00:15etik** 04:00etara, Untzaga plazan, **berbena Lisker** taldearekin.

## EKAINAK 24, ZAPATUA

**08:30ean**, **kalejira Lizarrako Dultzainero**ekin.

**11:00etatik** 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Untzaga Plazan, **"Mustruoaren koloreak" jolas parkea, Tomb Creatius** antzerki taldearen eskutik.

**12:00etan**, Arraten, **San Juan tiro txapelketa**.

**12:00etan**, San Andres parrokian, **meza kantatua Parrokiako abesbatza**rekin.

**12:45ean**, Toribio Etxebarrian, **Eibarko Cielito Musika Bandaren San Juan kontzertua**. Euria eginez gero, Errebal Plazan.

**18:00etan**, Eibarko Bizikleta plazan, **IV. San Juan City secrets, makro-ginkana kuadrilentzat**, Itzamnaren eskutik. 2011 baino lehenago jaiotakoentzat. Izen ematea ekainaren 2tik 16ra www.itzamna.eus

**19:00etan**, Anbulatorio parketik Untzagara, **“Kale zirkoa”** kale antzerkia **Zirkozaurre** konpainiarekin.

**19:00etan**, Urkizun abiatuta, **Umeen Danborrada, Ustekabe** fanfarrearekin.

**20:00etatik** 00:00etara **Botiltzarra Ai Laket.**

**20:30ean**, Untzagan, **umeen pregoia**, Umeen Danborradako Danbor Nagusiak irakurrita, eta **Alardea**.

**22:00etan** Erromerixa Untzaga plazan, **Jainaga eta Narbaizaren** eskutik.

**23:30ean**, **Soka Dantza** Untzaga plazan, **Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldea**rekin.

**00:00etan**, **suzko erroberak Global Foc SL Pirotecniaren** eskutik.

**00:00etik** 03:00era Alkoholemiaren karpa.

**00:15etik** 03:00etara, Untzaga Plazan, **berbena Nueva Alaska orkestra**rekin.

## EKAINAK 25, DOMEKA

**08:30ean**, **kalejira Lizarrako Dultzainero**ekin eta **goiz-erestia**.

**11:00etatik** 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Errebal Plazan, **“Mustruoaren koloreak” jolas parkea, Tomb Creatius** antzerki taldearen eskutik.

**11:30ean**, **San Juan XXVIII. marmitako lehiaketa**, Untzaga plazan.

**17:30etik** 20:30era, Urkizun, **umeentzako puzgarriak**.



**18:00etan**, Urkizutik, **Bergarako Erraldoi taldearen eta Lizarrako Dultzaineroen** kalejira.

**18:00etan**, Untzagatik, **kalejira Africa Baj Yay** taldearekin.

**19:00etan**, Untzaga Plazan, Eibarko X Dantza konpaniaren **"eta orain zer?"** kaleko dantza ikuskizuna.

**19:00etan**, erdigunean, **"Kermes del vermú" kale antzerkia Gorakada - Artelanda - Fran Lasuen** konpainiarekin.

**20:00etan**, Untzaga plazan, **Afrika Bibang** taldearekin kontzertua.

**23:00etan**, **suzko erroberak Pirotecnia Vulcanoren** eskutik.

## EKAINAK 27, ASTEARTEA

**16:30ean**, Karmen kaleko parkean, **umeentzako txokolate-jana**.

**17:00etan**, Karmen kaleko parkean, **umeentzako jolasak**.

**19:00etan**, Karmen kaleko parkean, **Oliver magoaren emanaldia**.

Antolatzailea: Beheko Tokia.

## EKAINAK 28, EGUAZTENA

**12:00etan**, Karmen kaleko parkean, **toka eta igela txapelketa**.

**18:00etan**, Karmen kaleko parkean, **Trio Medianoche** taldearen musika emanaldia.

Antolatzailea: Beheko Tokia.

## EKAINAK 29, EGUENA

**12:00etan**, Carmen Parrokian **meza, Gospel Bilbao** taldearekin.

**13:00etan**, Karmen kaleko parkean, **toka eta igel-toka txapelketaren sari banaketa eta piskolabisa**.

Antolatzailea: Beheko Tokia.



# PROGRAMA

## 1, 2 Y 3 DE JUNIO, JUEVES, VIERNES Y SÁBADO

**A las 19:30 horas**, en el teatro Coliseo, **representación del espectáculo de Nele Dantza**. Entrada: 3

## 8 Y 9 DE JUNIO, JUEVES Y VIERNES

**A las 20:00 horas**, en el teatro Coliseo, representación del **espectáculo de Biraka Dantza**. Entrada: 3 €

## 9 DE JUNIO, VIERNES

**A las 19:30 horas**, en la plaza de Untzaga, **Dantzari Eguna.** Organiza: Club Deportivo Eibar - Kezka Dantza Taldea.

**A las 20:30 horas**, en el **Polideportivo Ipurua, XXXIV Premio San Juan de Natación.** Organiza: Igerixan.

**A las 22:30 horas**, en el frontón Astelena, **velada de boxeo**. Organiza: Gimansio Ttatt SL.

## 10 DE JUNIO, SÁBADO

**De 16:00 a 21:00 horas**, en Txaltxa Zelai, **VIII Campeonato de Break Dance y New Style de Eibar.**

**A las 17:30 horas**, **III. Día del Txistu de Eibar,** con pasacalles por diferentes barrios de la localidad. Organiza: Usartza Txistulari taldea.

**A las 22:00 horas**, en el frontón Astelena **Eibar Kantuan.** Entrada:5€

## 11 DE JUNIO, DOMINGO

**A las 12:30 horas**, en la calle Toribio Etxebarria, **concierto de la Banda de Música CIELITO de Eibar**. En caso de lluvia en Errebal

## 14 DE JUNIO, MIÉRCOLES

**A las 20:00 horas**, en el teatro Coliseo, representación del **espectáculo de KOA Dantza**. Entrada: 3 €

## 15 DE JUNIO, JUEVES

**A las 19:00 horas**, en Untzaga, exhibición del **Club de Gimnasia Rítmica Ipurua**.

## 16 DE JUNIO, VIERNES

**A las 17:00 horas**, en el polideportivo Ipurua, fase eliminatoria del **XIX Premio Ciudad de Eibar de squash**. Organiza: Club Deportivo Eibar.

**A las 19:00 horas**, en Ibarkurutze, **noche poética**, dirigida por Maite Lorenzo.

**A las 20:00 horas**, en el teatro Coliseo, representación del **Ballet Eibarrés**. Entrada: 3 €

**A las 21:30 horas**, en la Plaza de Untzaga, concierto con **Ehun Kilo y SUTAGAR.**

## 17 DE JUNIO, SÁBADO

**A las 09:00 horas**, en el polideportivo Ipurua, cuadro básico del **XIX Premio Ciudad de Eibar de squash**.
Organiza: Club Deportivo Eibar.

**A partir de las 10 de la mañana**, en el campo de fútbol superior de Unbe, **II campeonato de fútbol 7** de cuadrillas de Eibar, nacidos/as entre 1960-2006. Inscripciones mediante IPQLOKAL de Instagram.
De 09:30 a 20:30 horas, en Errebal Plazia, **taller de simulación de juegos** (modelismo, escenografía y juegos de mesa), a cargo de la **Asociación Odisea.**

**A las 12:00 horas**, **XXXV Torneo de Bolo Palma Ciudad de Eibar** en la bolera de Ipurua entre los equipos de la Casa de Cantabria de Eibar y la Peña Bolística de Ermua.

**A las 16:00 horas**, **finales del XIX Premio Ciudad de Eibar de squash**.
Organiza: Club Deportivo Eibar.

**A las 23:00 horas**, en la Plaza de Untzaga, **concierto** con **FANGORIA**.



**De 23:30 a 02:30**, en Unzaga, **carpa informativa de prevención para reducir los riesgos del consumo de alcohol y otras drogas**.

**De 01:00 a 03:00 Dantz Point musika elektronikoa, con el Dj local Unai Santos y la DJ Yahaira**.

## 18 DE JUNIO, DOMINGO

**A las 9:30 horas**, **LXXXVII Gran premio San Juan de ciclismo – Campeonato de Gipuzkoa**, categoría juvenil.
Salida y meta: Untzaga.
Organiza: Club Ciclista Eibarrés.

**A las 17:00 horas**, **II Campeonato de San Juan de billar a 3 bandas**.
Organiza: Casino Artista Eibarrés.

## 22 DE JUNIO, JUEVES

Durante todo el día las atracciones de la **feria** a 0,90 €.

**De 17:00 a 20:00 horas**, en Untzaga, **parque infantil de hinchables**.

**A las 19:00 horas**, en la plaza de Untzaga**, teatro infantil: "Txaplin" a cargo de la compañía Tutik Klown (Gari, Montxo eta Jose Lontxo).**



**A las 22:00 horas**, en la plaza de Untzaga, teatro **"Carbón Club" a cargo de la compañía Markeliñe.**

## 23 DE JUNIO, VIERNES

**A las 10:30 horas**, en el Hospital, **puesta del pañuelo al Santo** con la actuación de **Kaleetan kantuz.**

**A las 11:00 horas**, desde Untzaga, **Zortziko de San Juan**, a cargo de la **Banda de Txistularis** Usartza, acompañada de metales.

**A las 12:00 horas**, en Untzaga, **concentración de cuadrillas** y **pasacalle** hasta Urkizu con la fanfarre **Ustekabe.** Organiza: Gaste.

**A las 13:00 horas**, en la calle Estación, recibimiento a los Dulzaineros de Estella y pasacalle hasta la Plaza de Untzaga, acompañados por la **Corporación, Equipo Femenino de la SD Eibar, Hodei Ezpeleta, Lorea Urkia, José Pérez Cid – El Tigre, Aitor Montero** y las cuadrillas.

**A las 13:30 horas**, desde el Ayuntamiento, **pregón de fiestas** y lanzamiento del **txupinazo**.

**A las 13:30 horas**, en Arrate, **Gran Premio de Eibar de tiro a la hélice**.

**A las 13:45 horas**, entrega de los **premios** del **concurso de carteles de San Juan y del concurso de la pegatina en contra del abuso en el consumo de alcohol.**

**De 17:00 a 20:00 horas** en Untzaga, **taller de tiza: el cartel de San Juan más grande del mundo**, a cargo de **Lekim Animazioak**.

**De 17:30 a 20:30 horas**, en Urkizu, **parque infantil de hinchables**.

**A las 18:00 horas**, desde Untzaga, **pasacalle** con la fanfarre **Ustekabe.**

**A las 19:00 horas**, desde Urkizu, **de la comparsa de gigantes y cabezudos de Estella y los Dulzaineros de Estella**.



**A las 19:30 horas**, desde Untzaga, **pasacalle** con la fanfarre **Irulitxa**.

**A las 19:00 horas**, **Salve** en la parroquia de San Andrés, con el **Coro Parroquial**.

**A las 23:30 horas**, en Untzaga, **hoguera de San Juan** con la actuación de **Nele Dantza - Danza Contemporánea de Eibar**, organizada por ...eta Kitto! y **Queimada** organizada por la Casa de Galicia As Burgas.

**A las 00:00 horas**, en Untzaga, **Himno de San Juan** y **Alarde de Tamborrada**, acompañados por la banda de música Cielito.



**De 00:00 a 00:30 horas**, en Unzaga, **Programa Testing Ai laket**.

**De 00:15 a 04:00 horas**, en Untzaga, **verbena** con el grupo **Lisker**.

## 24 DE JUNIO, SÁBADO

**A las 08:30 horas**, **pasacalle** con los **Dulzaineros de Estella**.

**De 11:00 a 14:00 horas**, y de 17:00 a 20:00 horas, en la Plaza de Untzaga **"Mustruoaren koloreak"**, parque infantil con la compañía de teatro Tomb Creatius.

**A las 12:00**, en Arrate, **Torneo San Juan de tiro**.

**A las 12:00 horas**, en la parroquia de San Andrés, **misa cantada** con el Coro Parroquial.

**A las 12:45 horas**, en Toribio Etxebarria, **Concierto de San Juan** con **la Banda de Música Cielito de Eibar**. Si llueve, en Errebal Plaza.

**A las 18:00 horas**, en Eibarko Bizikleta plaza, **IV San Juan City secrets, macro-ginkana para cuadrillas** a cargo de Itzamna. Para personas nacidas antes del 2011, Inscripción del 2 al 16 de junio en www.itzamna.eus

**A las 19:00 horas**, desde el Parque del Ambulatorio hasta Untzaga, **"Kale zirkoa"**, teatro de calle con la compañía **Zirkozaurre**.

**A las 19:00 horas**, desde Urkizu, **Tamborrada infantil**, acompañada por la fanfarre Ustekabe.



**De 20:00 a 00:00 Botiltzarra Ai laket**.

**A las 20:30 horas**, en Untzaga, **Pregón Infantil** a cargo del Tambor Mayor de la Tamborrada infantil y **Alarde**.

**A las 22:00 horas**, en la plaza de Unzaga, romería con **Jainaga y Narbaiza**.

**A las 23:30 horas**, en la plaza de Untzaga, Soka-Dantza con **Kezka Dantza Taldea** y la **Banda de Txistularis Usartza.**

**A las 00:00 horas**, **Fuegos Artificiales** con **Pirotecnia Global Foc SL.**

**De 00:00 a 03:00** Carpa para la prevención de la Alcoholemia

**De 00:15 a 03:00 horas**, en la Plaza de Untzaga, **verbena** con la orquesta **Nueva Alaska**.

## 25 DE JUNIO, IGANDEA

**A las 08:30 horas**, **pasacalle** con los **Dulzaineros de Estella y diana**.

**De 11:00 a 14:00 horas**, y de 17:00 a 20:00 horas, en Plaza de Errebal, **parque infantil "Mustruoaren koloreak"**, con la compañía de teatro **tomb Creatius**.

**A las 11:30 horas**, en Untzaga, **XXVIII Concurso San Juan de marmitako**.

**De 17:30 a 20:30 horas**, en Urkizu, **parque infantil de hinchables**.

**A las 18:00 horas**, desde Urkizu, pasacalle de la **comparsa de gigantes de Bergara y los Dulzaineros de Estella**.

**A las 18:00 horas**, desde Untzaga, **pasacalle** con el grupo **Africa Baj Yay.**

**A las 19:00 horas**, en la Plaza de Untzaga, espectáculo de danza **"y ahora qué?"** de la Compañía X de Eibar.

**A las 19:00 horas**, por el centro, "**Kermes del vermú", teatro de calle** con la compañía **Gorakada - Artelanda - Fran Lasuen.**



**A las 20:00 horas**, en la plaza de Untzaga, concierto con **Afrika Bibang.**

**A las 23:00 horas**, **fuegos artificiales** a cargo de **Pirotecnia Vulcano.**

## 27 DE JUNIO, MARTES

**A las 16:30 horas**, en el parque de la calle Carmen, **chocolatada infantil.**

**A las 17:00 horas**, en el parque de la calle Carmen, **juegos infantiles.**

**A las 19:00 horas**, en el parque de la calle del Carmen, actuación de **Mago Oliver**.

Organiza: Beheko Tokia.

## 28 DE JUNIO, MIÉRCOLES

**A las 12:00 horas**, en el parque de la calle Carmen, Campeonato de **toka y rana.**

**A a las 18:00 horas**, en el parque de la calle Carmen, actuación musical del grupo **Trío Medianoche**.

Organiza: Beheko Tokia.

## 29 DE JUNIO, JUEVES

**A las 12:00 horas**, **misa** en la parroquia del Carmen, con la actuación de **Gospel Bilbao.**

**A las 13:00 horas**, en el parque de la calle Carmen, **reparto de premios del campeonato de toka y rana y piscolabis**.

Organiza: Beheko Tokia.

MIC Edizioak
Tel.: 902 271 902
www.editorialmic.com

# KARTEL LEHIAKETA
# CONCURSO DE CARTELES

**NAGUSIAK**
**MAYORES**

**LEHEN SARIA**
**PRIMER PREMIO**

**TRADICIÓN** Alfredo León Mañú




**UMEAK**
**NIÑAS Y NIÑOS**

**LEHEN SARIA**
**PRIMER PREMIO**

**10 URTE ARTEKOAK**
**HASTA 10 AÑOS**

**FESTAK TOPERA**
Maialen Casero Álvarez




**UMEAK**
**NIÑAS Y NIÑOS**

**LEHEN SARIA**
**PRIMER PREMIO**

**11 ETA 14 URTE BITARTEKOAK**
**ENTRE 11 Y 14 AÑOS**

**PETO-PETO**
Lennon Franco Martínez




# ALKOHOL GEHIEGIKERIAREN KONTRAKO PEGATINA LEHIAKETA
# CONCURSO DE PEGATINAS CONTRA EL ABUSO DEL ALCOHOL

**LEHEN SARIA**
**PRIMER PREMIO**
**ERABILI BURUA**
Marta Marina Larrañaga



# HERRIKO JAIEN EGITARAUA EGITEN LAGUNDU DUTEN TALDE GUZTIEI ESKERRIK BEROENAK EMATEN DIZKIE EIBARKO UDALAK:

# EL AYUNTAMIENTO DE EIBAR AGRADECE LA COLABORACIÓN DE TODAS LAS ENTIDADES QUE HAN HECHO POSIBLE ESTE PROGRAMA DE FIESTAS:

- AmañakoJai batzordea
- Antzerki laborategia
- As Burgas Galiziako Etxea
- Ballet Eibarrés
- Beheko Tokia
- Biraka Dantza
- Cielito Musika Banda
- Danborrada antolatzeko batzordea
- DYA
- Eibar Igerixan
- Eibarko Klub Deportiboa
- Eibarko koadrilak
- Eibarko koro gaztea
- Eibarko Txirrindulari Elkartea
- Emakumeen mahaia
- ...eta kitto! Euskara Elkartea
- Gaste
- Ipurua Gimnasia Erritmiko Taldea
- Juan Bautista Gisasola Musika Eskola
- Kaleetan kantuz
- Kantabriako Etxea
- Kaxa
- Kezka Dantza Taldea
- Koa Dantza
- Nele Dantza
- Odisea Elkartea
- Parrokiako Korua
- Sociedad de Tiro al Vuelo
- Sostoa Abesbatza
- Untzaga Jubilatuen Etxea
- Usartza Txistulari Banda

- Comisión de Fiestas de Amaña
- Antzerki laborategia
- Casa Cultural de Galicia As Burgas
- Ballet Eibarrés
- Beheko Tokia
- Biraka Dantza
- Banda de Música Cielito
- Comisión organizadora de la Tamborrada
- DYA
- Eibar Igerixan
- Club Deportivo Eibar
- Cuadrillas de Eibar
- Eibarko koro gaztea
- Club Ciclista Eibarrés
- Mesa de la mujer
- ...eta kitto! Euskara Elkartea
- Gaste
- Club de Gimnasia Rítmica Ipurua
- Escuela de Música Juan Bautista Gisasola
- Kaleetan kantuz
- Casa de Cantabria
- Kaxa
- Kezka Dantza Taldea
- Koa Dantza
- Nele Dantza
- Asociación Odisea
- Coro Parroquial
- Sociedad de Tiro al Vuelo
- Sostoa Abesbatza
- Hogar del Jubilado Untzaga
- Banda de Txistularis Usartza

# EMAKUMEZKOEN EIBARKO FUTBOLAK HITZORDUA DU BERRIRO ERE HISTORIAREKIN

# EL FÚTBOL FEMENINO DE EIBAR VUELVE A CITARSE CON LA HISTORIA




**Testua eta Argazkiak / Texto y Fotografías: SD Eibar.**

Kategoria gorenean zuen postua galdu eta urtebetera, Eibarko lehen emakume-taldeak eliteko postua berreskuratu du, eta berriz ere F Ligan parte hartzen duen talde bikaineko kide izango da.

Berriro ere, emakumezkoek gure hirian egiten duten futbolak historiarekin egin du hitzordua. 50 urte baino gehiago igaro dira Ipuruan emakumezkoen lehen futbol-partida jokatu zenetik, eta han landatutako haziak fruituak ematen jarraitzen du.

Un año después de perder su plaza en la máxima categoría, el primer equipo femenino del Eibar ha recuperado su puesto en la élite y volverá a formar parte del selecto grupo de equipos que participa en la Liga F.

Una vez más, el fútbol practicado por mujeres en nuestra ciudad se ha citado con la historia. Han pasado más de 50 años desde la disputa en Ipurua del primer partido de fútbol femenino en la villa armera y la semilla allí plantada sigue dando sus frutos.

Oraingo honetan, futbolari armaginek, Yerai Martinek zuzenduta, denboraldi bikaina egin dute, eta RFEFeko Lehen Mailako talde bakarreko txapeldunorde geratu dira, Bartzelona B-ren atzetik, talde filial izanda mailaz igotzeko aukerarik ez baitzuen.

Bakarrik hiru porrot eta 30 partidutan 18 gol jasota, taldearen ibilbide bikainak mailaz igotzea ahalbidetu die, horretarako azken partidako azken minutura arte itxaron behar izan badute ere. Itxaronaldiak, tentsioak eta urduritasunak merezi izan dute, eta datorren denboraldian gure taldea emakumezkoen futboleko Ohorezko Maila osatzen duten 16 taldeetako bat izango da.

Arrakasta honen jatorrian daude duela mende erdi baino gehiago, orain kirol gogokoena praktikatzea bezain naturala den zerbaiten alde, gaur egun baino egoera askoz txarragoan, borrokatu ziren emakume eibartar askoren lana eta dedikazioa.

1971ko maiatzaren 29an, emakumeen futbol lehiaketak izan baino askoz lehenago,

En esta ocasión, las futbolistas armeras, dirigidas por Yerai Martín, han protagonizado una temporada brillante que les ha permitido quedar subcampeonas del grupo único de Primera RFEF, por detrás del Barcelona B que, como equipo filial, no tenía opciones de ascenso.

Con solo tres derrotas y 18 goles encajados en 30 partidos, la trayectoria del Eibar le hace acreedor a un premio para el que tuvo que esperar hasta el último minuto del último partido. La espera, la tensión y los nervios merecieron la pena y la temporada que viene nuestro equipo será uno de los 16 que conformen la División de Honor del fútbol femenino.

En el origen de este éxito está el trabajo y la dedicación de muchas mujeres eibarresas que hace más de medio siglo, en unas circunstancias mucho más adversas que las actuales, pelearon por algo que ahora resulta tan natural como poder practicar su deporte favorito.

El 29 de mayo de 1971, mucho antes de que existieran competiciones de fútbol de



eibartar gazte talde batek erabaki zuen Ermuko jokalariz osatutako talde baten aurka lagunarteko partida bat jokatzea, nahiz eta horretarako aurre egin behar izan zien jarritako oztopo guztiei, bai eta Gobernadore Zibilak neskentzat egokia ez zelakoan berariaz ezarritako debekuari ere.

Jende asko hurbildu zen Ipuruara partida ikustera. Topaketaren helburua zen Markeskua komentuko mojentzako dirua biltzea. Azken emaitza 1-0 izan zen eibartarren alde.

80ko hamarkadaren amaieran, Eibarko emakumezkoen lehen futbol-taldea eratu zen, eta 1991n Eibartarrak taldea sortu zen, une loriatsuak izan zituena.

98-99 denboraldian, Eibartarrak Ipar Ligan nagusitu zen, eta hirugarren geratu zen emakumezkoen ligako azken fasean (orduan Txapeldunen Liga deitzen zitzaion), non lurraldeetako lau ligetako talde txapeldunek parte hartzen baitzuten. Nazio-mailako lehiaketa horretan, armaginak hirugarren geratu ziren.

Denboraldi horretako Erregina Kopan, Eibartarrak taldeak Iruñeko Lagunak eta Extremadurako Irex Puebla kanporatu zituen, eta, beraz, finalerako sailkatzea lortu zuen. Finala 1999ko ekainaren 27an jokatu zuen Tomelloson (Ciudad Real), Madrileko Oroquieta Villaverderen aurka. Talde madrildarrak irabazi zuen eta horrela garaipen bikoitza lortu zuen, urte hartan liga ere irabazi baitzuen.



mujeres, un grupo de jóvenes eibarresas decidió sortear adversidades y palos en las ruedas, incluyendo la prohibición expresa de Gobernador Civil por no ser “apropiado para las señoritas”, para disputar un encuentro amistoso ante un equipo formado por jugadoras de Ermua.

Numeroso público se acercó a Ipurua a presenciar el encuentro, cuyo fin era recaudar fondos para las monjas del convento de Markeskua. El resultado final fue de 1-0 para las eibarresas.

A finales de los años 80 se constituyó el primer equipo de fútbol femenino de Eibar, que dio paso en 1991 al Eibartarrak, que conoció momentos de gloria.

En la temporada 98-99, el Eibartarrak se impuso en la Liga Norte y quedó tercero en la fase final de la liga femenina (entonces llamada Liga de Campeonas) en la que participaban los equipos campeones de las cuatro ligas territoriales. En esa competición de ámbito nacional, las armeras quedaron terceras.

En la Copa de la Reina de esa temporada, el Eibartarrak eliminó al Lagunak de Pamplona y al Irex Puebla extremeño, por lo que logró su clasificación para la final, que se disputó el 27 de junio de 1999 en Tomelloso (Ciudad Real) ante el Oroquieta Villaverde de Madrid, que logró la victoria y el doblete, porque ya había ganado la liga.

Ambos equipos volvieron a verse las caras meses después con la Supercopa en juego. En la ida, el Eibartarrak ganó 3-0 en Unbe y en la vuelta, celebrada el 28 de noviembre, las armeras repitieron victoria por 0-5, con lo que lograron el mayor éxito alcanzado hasta la fecha por un equipo femenino de Eibar.

En la temporada 2000-2001, el Eibartarrak prosiguió con su racha triunfal y, tras ganar la Liga Norte, llegó a la final de la Liga de Campeonas, en la que cayó ante el Levante en un partido jugado en el estadio Ciudad de Levante ante 4.000 espectadores.

Bi taldeek elkar ikusi zuten hilabete batzuk geroago Superkopan. Joaneko partidan, Eibartarrak 3-0 nagusitu zen Unben eta itzulikoan, azaroaren 28an, armaginek garaipena errepikatu zuten 0-5eko emaitzarekin. Horrela lortu zuen Eibarko emakumezkoen talde batek orain arte lortutako arrakastarik handiena.

2000-2001 denboraldian, Eibartarrak taldeak bolada onarekin jarraitu zuen eta, Ipar Liga irabazi ondoren, Txapeldunen Ligako finalera iritsi zen. Bertan, Levanteren aurka galdu zuen 4.000 ikusleren aurrean Levante Hirian jokatutako partidan.

Eibartarrak taldea SD Eibarren egituran sartu ondoren, futboleko Superligan parte hartzera gonbidatu zuten 2009an. Txapelketa sortu berria zen, Ohorezko Mailaren parekoa, non armaginek bi denboralditan parte hartu baitzuten.

Eibarrek denboraldi batzuk eman zituen Euskal Ligan eta Bigarren Mailan, 2019-2020 denboraldian, pandemia bete-betean eta lehiaketa etenda zegoela, Federazioak Lehen Mailara igotzea baieztatu zuen arte, liga bertan behera geratu zen unean igoera postuan zegoelako. Arrakasta hori *petit comite*an baino ezin izan zen ospatu, ageriko arrazoiengatik.

Bi denboralditan maila nagusiko handiekin batera aritu ondoren, Eibar 2021-2022 denboraldiaren amaieran jaitsi zen eta proiektu berri bat eratzen hasi zen maila gorenera itzultzeko asmoz.

Denboraldi bakar batean, Yerai Martinen taldeak bere helburua bete du eta, oraingoan bai, oraingoan bere zaleei arrakasta eskaini ahal izan zien joan den maiatzaren 16an Udaletxeko balkoitik.

Orain, Eibar bulegoetan ari da lanean, urtez urte handitzen ari diren kirol, ekonomia eta antolakuntzako eskakizunak dituen liga profesional batean lehiakor izatea ahalbidetuko dion talde bat osatzeko. Neurria ematea da hurrengo erronka.



Tras la integración del Eibartarrak en la estructura de SD Eibar, el equipo fue invitado en 2009 a formar parte de la Superliga de fútbol, competición de nueva creación equivalente a la División de Honor en la que las armeras participaron durante dos temporadas.

El Eibar estuvo varias temporadas en Liga Vasca y Segunda División hasta que en la temporada 2019-2020, en plena pandemia y con la competición suspendida, la Federación confirmó el ascenso a la Primera División al encontrarse en puesto de ascenso en el momento de la suspensión de la liga. Fue un éxito que solo pudo celebrarse en *petit comité* por motivos obvios.

Después de dos temporadas codeándose con los grandes de la categoría, el Eibar descendió al final de la temporada 2021-2022 y empezó a construir un nuevo proyecto con el fin de retornar a la máxima categoría.

En solo una temporada, el equipo de Yerai Martín ha cumplido su objetivo y, esta vez sí, pudo brindar el éxito a su afición el pasado 16 de mayo desde la balconada del Ayuntamiento.

El Eibar trabaja ahora en los despachos para completar una plantilla con garantías que le permita ser competitivo en una liga profesional con unas exigencias deportivas, económicas y organizativas que crecen año tras año. Estar a la altura es el próximo reto.

# EHUN GEHI BAT
# CIEN MAS UNO

**Nerea Alustiza**

Normalean, pertsona edo gertaera zehatzei omenaldiak egiten zaizkienean, mendeurrena da data seinalatuenetako bat. Baina arauak hautsi daitezkeenez, kasu honetan, testu txiki honen bidez, eibartar bat omenduko dugu, duela urte batzuk utzi gintuen arren gure oroimenean bizirik dirauelako. Juan San Martin Eibarren jaio zen 1922ko ekainaren 24an, familia langile batean, eta, jakina, horixe izan zen bere bizitza osoan zehar egin zuena, bere denboraren zati bat eskuzabaltasun handiz erabili hurkoari laguntzeko, kontakizun honetan adieraziko dudan bezala. Juanitori buruz, gauza asko aipa genitzake: bere zaletasunak, lehen Arartekoa (Euskal Herriaren Defendatzailea) izan zela… Baina ez ditut kontatu nahi bere balentriak, historia-liburuetan dagoeneko aitortuak izan direnak, baizik eta adierazi nola, bere izaera erabakigarri eta baketsuari esker, Eibarko kultura babestu zuen eta, bere apaltasun ezagunarekin, arlo ezberdinetan pertsona bat baino gehiago bultzatu eta lagundu zituen.

Liburutegiari hain merezimendu handiz eman zitzaion izenetik hasiko gara. San Martinek, herriko seme kutunak, ez zuen kalerik, ez plazarik. Horregatik, 2005ean Udalak erabaki zuen Juan San Martin izena jartzea Udal Liburutegiari, Eibarren liburu bildumarik handiena duen guneari. Horrela, Juanitok leku bat izango zuen bere izenean.

Normalmente, cuando se rinden homenajes a personas o hechos concretos, el Centenario es una de las fechas más señaladas. Pero, como las normas pueden romperse, en este caso vamos, a través de este pequeño texto, a homenajear a un eibarrés que a pesar de habernos dejado hace unos años pervive en nuestro recuerdo. Juan San Martín nació en Eibar el 24 de junio de 1922, en el seno de una familia trabajadora, y desde luego fue lo que hizo a lo largo de toda su vida, emplear parte de su tiempo con gran generosidad en el prójimo, tal y como voy a expresar en este relato. De Juanito, muchas cosas podríamos comentar, desde sus aficiones hasta finalmente acabar siendo el primer Ararteko (Defensor del pueblo vasco), pero no deseo contar sus hazañas que son tan reconocidas en los anales de la historia, sino expresar cómo gracias a su carácter, determinante y pacífico, apoyó a la cultura eibarresa y se inmiscuyó, con su conocida humildad en impulsar y favorecer a más de una persona, en diferentes áreas.

Comenzamos por la denominación que se le otorgó tan merecidamente a la biblioteca. Ninguna calle o plaza llevaba el nombre de San Martín, hijo Predilecto de la ciudad. Fue por ese motivo por el que en 2005 el Ayuntamiento decide poner el nombre de Juan San Martin a la Biblioteca municipal, espacio con la mayor colección de libros en Eibar. Así, Juanito contaría con un lugar a su nombre.

Iaz, Udalak seme kutun hau omendu zuen haren jaiotzaren mendeurrenean, programazio zabalarekin. Liburutegian, zehazki, eta beste jarduera batzuen artean, erakusketa bat egin zen bisita gidatuekin, San Martinen ibilbideko gertaera gogoangarrienak nabarmenduz. Han izan nuen ekintza haietan parte hartzeko zoria, eta nire harridurarako berriz ere ezagutu nuen gizon handi hau. Etxean entzuten nituen pasadizoak gogoratu nituen, bere familia osoari buruzkoak, eta inoiz pentsatuko ez nituzkeen eta hainbeste duintzen duten alderdi eta ekintzak deskubritu nituen. Esperientzia ahaztezina izan zen. Pertsona ezagunak, eta ezagunak ez ziren beste batzuk, liburutegiko instalazioetara hurbildu ziren hitz egitera eta gainerakoek komentatzeko zutena entzutera. Guztiek, bere alderdi pertsonaletik, eskerrak ematen zizkioten eibartar paregabe honi.

Eibarko euskararekiko eta ikastolen sorrerarekiko beti erakutsi zuen grinatik, esan dezakegu fundazio honetan akuilu izan zela. M. Tere Munduate 1960tik ikastolako irakasle izan zenak dioen bezala, Juanitori esker, besteak beste, ikastetxe hau errealitate bat izan zen Eibarren. Zazpi ikaslerekin hasi ziren, Bidebarrieta kaleko 44. zenbakiko 2. eskuinean, euskara hutsezko eskolak ematen, seme-alabak zentro klandestino horretara eramaten ausartzen zirenentzat. Horrela, Munduatek zioen Juanito irakasle dohainak zituen eta euskaraz ezagutza handia zuen pertsona baten bila ari zela eskolak eman ahal izateko. Eta han zegoen Eskoriatzakoa, odisea horretarako prestatua. Hasiera batean dezente gehiago zeuden apuntatuta, baina zazpirekin hasi ziren. Zorionez, gauzak aldatu egin ziren, eta gaur egun ikastolak energia ona eta ikasle ugari ditu.

Bestalde, Esther Galarza Udal Eskolako zeramika irakasleak kontatu zigun Juanito izan zela hasieran zaletasun zen baina bere bizitza osorako lanbide bihurtuko zen arlo horretan gehien babestu zuen pertsonetako bat. Juanitori esker, Esther Gironara joan zen teknika ezberdinak ikastera. «Urte haietan hemen ez zen oso ohikoa zeramikaria izatea, eta ez zintuzten ulertzen», dio Galarzak.

El pasado año, el Ayuntamiento homenajeó a este hijo predilecto en el centenario de su nacimiento con una amplia programación. En la Biblioteca en concreto, y entre otras actividades, se hizo una exposición con visitas guiadas destacando los hitos en la trayectoria de San Martin.
Allí tuve la fortuna de coparticipar en aquellas acciones, y cuál fue mi sorpresa que volví a conocer de nuevo a este hombre. Recordé anécdotas que oía en casa, acerca de toda su familia, y descubrí facetas y acciones que jamás hubiera pensado, y que tanto le dignifican. Fue una experiencia inolvidable. Personas conocidas y otras no, se acercaron hasta las instalaciones de la biblioteca para hablar y escuchar lo que el resto tenía para comentar. Todas, desde su faceta personal agradecían a este singular eibartarra.

Desde la pasión que mostró siempre hacia el euskera eibarrés y a la creación de las ikastolas, podemos decir, que fue un acicate en esta fundación. Tal como dice M. Tere Munduate, profesora de la ikastola desde 1960, gracias a Juanito, entre otros, este centro docente fue en Eibar una realidad. Con siete alumnos en el 2º dcha del número 44 de la calle Bidebarrieta, allí comenzaron las clases íntegramente en euskera para aquellos que se atrevieran a llevar a sus hijos a este centro clandestino. Así, comentaba Munduate que Juanito buscaba una persona con dotes docentes y con alto conocimiento en euskera para poder impartir estas clases. Y allí estaba la de Eskoriatza, preparada para tal odisea. En un principio había bastantes más apuntados pero comenzaron con siete. Afortunadamente la cosa cambió y la ikastola hoy goza de una buena energía y un alumnado muy numeroso.

Por otro lado Esther Galarza, profesora de cerámica de la Escuela municipal, nos contó cómo fue Juanito una de las personas que más le apoyaron en esta inicialmente afición, para convertirse en su profesión consagrada durante toda su vida. Gracias a él, Esther salió hacia Girona para aprender diferentes técnicas en este menester. “En aquellos años ser ceramista aquí no era muy habitual y no te entendían”, relata Galarza.



Fotografía: Felipe Loyola – José Valderrey

Mendiko  esperientziei dagokienez, Iñaki Osorok, Klub Deportiboko presidenteak, beste aurkezpen batean pozarren harrituta utzi ninduen eskaladak dakartzan arriskuak azaltzerakoan. Juanitok zioen eskalatzera beti lagun batekin joan behar dela. Batek buru pentsatzailea izan behar du eta besteak gorputza. Hau da, bata izan behar da zuzentzen duena eta bestea sasoi fisikorik onenean dagoena. Baina beste ezeren gainetik adiskidetasuna egon behar da. Garrantzitsua da, kirol arriskutsu batean lagun artean arituta, lagunek beti elkar zainduko baitute.

Izan ere, egia da adiskidetasunaren kontzeptua Juan San Martinengan ederki defini dezakegula. Interes eta onura pertsonalik izan gabe, laguntza eman zuen egoera askotan, baita legearen muga-mugan ere. Leial jokatu zuen bere idealekin, beren semeei Unai eta Oier izenak jartzeko erabakian

En cuanto a las experiencias montañeras, Iñaki Osoro, presidente del Club Deportivo, en otra de las presentaciones me dejó gratamente sorprendida al explicar los peligros que conlleva la escalada. Juanito decía que para escalar siempre hay que ir con un amigo. Uno de ellos tiene que ser la cabeza pensante y el otro el cuerpo. Es decir, uno el que dirige y el otro el que en mejor forma física está. Pero por encima de todo la amistad. Es importante puesto que en un deporte de riesgo entre amigos siempre se apoyarán.

Y sí es cierto que si en alguna persona podemos definir el concepto de amistad es en Juan San Martín. Sin tener ningún interés ni beneficio personal ayudó y colaboró en situaciones que rozaban la ilegalidad. Fue fiel a sus ideales, como en la imposición de los nombres de sus hijos Unai, y Oier, quien tuvo

bezala. Lau urtez borrokatu behar izan zuen epaileen aurrean eta erregistro zibilean izen euskaldunak eraman zitzaten.

Hauxe da Juanito guretzat, sinplea, xumea eta aldi berean nekaezina eta beti baketik abiatuta.

Eta, kontakizun hau amaitzeko, Mari Tere Munduateren hitzak, Juanitori egindako omenaldi txiki baina merezitako honekin bat egin nahi izan duena. Eskerrik asko!

que luchar durante 4 años para que llevaran nombres euskaldunes entre jueces y registros civiles.

Este es Juanito para nosotros, sencillo, humilde y a la vez tenaz y siempre desde la paz.

Y, para terminar este relato, unas palabras de Mari Tere Munduate, quien ha querido sumarse a este pequeño pero tan merecido homenaje a Juanito. Eskerrik asko!

“Eibarren ikastola sortzeko, euskaltzale taldeko langile haundi bat izan zen Juanito San Martín.

Euskeraz eta metodo berriekin haurrei erakutsiko ziena behar zenuten Eibarren.

Aurkitze lanetan buru belarri ibili zinen zeu Juanito eta nerekin topo egin zenuen.

1960an ezagutu ginen. Zu, Juanito , andereño baten bila eta ni haurrak euskaraz hezitze lanean.

Zure laguntza eta animoa izan nuen beti. Esker onez gogoratzen zaitut.

Eibar, herri eder eta jator honetan 2023ko Ekainean”.